

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	BIZIKLETAK MANTENTZEA, KONPONTZEA ETA LEKUALDATZEA	Iraupena	30
		Espezifikoa	
Kodea	UF0299		
Lanbide-arloa	KIROL-JARDUERA FISIKOAK		
Lanbide-eremua	Aisialdiko gorputz- eta kirol-ekintzak		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Bizikletaz egiteko ibilbideetako gida	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Bizikletak mantentzea eta gidatzea	Iraupena	140
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Ingurune naturaleko joan-etorriak, egonaldiak, eta segurtasuna, eta lekuko bertako orientazioa (zeharkakoa)	Iraupena	30
	Bizikletak askotariko lurretan gidatzea		80

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0508_2 Askotariko lurretan (gehienez erdi-mailako mendiak) bizikletak eraginkor eta seguru gidatzea eta bizikleten mantentze-lan operatiboak egitea gaitasun-ataleko LB1 lanbide-burutzapenarekin

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Bizikleta eta ibilbidea egiteko beharrezkoa den materiala prestatzea.

EI1.1 Bizikleta-moten ezaugarriak deskribatzea.

EI1.2 Bizikletaz egiteko ibilbideetarako zer material pertsonal eta osagarri behar diren aipatzea, eta haien ezaugarriak eta funtzionaltasuna azaltzea.

EI1.3 Materiala eta ekipoa zakutoetan nola banatu zehaztea.

EI1.4 Bide jakin baterako behar diren erreminten eta ordezeko piezen zerrenda adieraztea.

EI1.5 Bizikletaren kondizioak zehaztea, lur-motaren eta erabiliko diren tekniken arabera.

A2: Bizikletak eta jarduerak egiteko behar den materialaren mantentze- eta konponketa-lanak egitea, fabrikatzaileak aurreikusitako erabilera-baldintzei eutsiz.

EI2.1 Bizikletaren piezak eta osagaiak eta haien funtzionaltasuna deskribatzea.

EI2.2 Bizikletaren piezak eta osagaiak eta hondatuta dagoen konponketa-materiala ordezkatzeko, fabrikatzaileak gomendatutako eraginkortasun-irizpideei eutsiz.

EI2.3 Bizikletaren oinarriko elementuak desmuntatzea eta bereiz muntatzea, modu egokian, erreminta egokiak abileziak erabiliz.

EI2.4 Matxurak diagnostikatzea eta konpontzea, hala nola zulaketak, bielak, kateak, balaztak, direkzioa eta aldagailuaren desdoikuntzak.

EI2.5 Bizikleta garbitzeko eta koipeztatzeko lanak egitea.

EI2.6 Bizikletaren konponketa- eta mantentze-lanak egiteko behar diren erremintak hautatzea.

EI2.7 Erreminta bakoitza dagozkion piezarekin eta osagaiarekin identifikatzea.

EI2.8 Erremintak abileziak erabiltzea, haien ezaugarriak eta aplikazioak aztertuz.

EI2.9 Mantentze- eta konponketa-lanetarako erabiltzen diren erremintak erabiltzeko teknikak deskribatzea.

EI2.10 Ekipamenduaren mantentze-lanak egiteko erabiltzen diren materialei dagokienez, teknikak, materialak eta lan-erremintak deskribatzea.

EI2.11 Mantentze-ekintza prebentiboak egitea, fabrikatzaileak ezarritako jarraibideen arabera.

A3: Materiala biltegitratzeko eta lekualdatzeko hainbat modu aukeratzea eta gauzatzea.

EI3.1 Bizikletak eta materialak biltegian sailkatzea, ezarritako irizpideen arabera.

EI3.2 Beharrezkoak diren materiala eta jantziak biltegitratzeko eta kontserbatzeko erabiltzen diren irizpideak deskribatzea.

EI3.3 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan egoera simulatu batean, biltegi bateko materiala antolatzea:

– Erabilgarri dagoen tokia optimizatzea.

– Materiala eskuratzea erraztea.

– Materiala entregatzeko eta jasotzeko eremuak, mantentze-lanetako eremuak, garbiketako eremuak eta biltegitratze-eremuak zehaztea.

– Bizikletak eta materialak argi sailkatzea.

EI3.4 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean, bizikleten garraioa antolatzea, plangintza egokia eginez.

EI3.5 Materiala eta bizikletak egoki eta eraginkor garraiatzea, haien osotasunari une oro eutsiz.

- EI3.6 Bizikletak eta antzekoak garraiatzeari dagokionez indarrean dagoen legeria azaltzea.
- EI3.7 Furgoiek edo atoeik bizikletak garraiatzeko bete behar dituzten baldintzak deskribatzea.
- EI3.8 Bizikletak ainguratzeko, lotzeko eta oratzeko behar diren elementuak deskribatzea.
- EI3.9 Kasu praktiko batean, bizikletak lekualdatzeko prestaketa-lanak egitea.

Edukiak

1. Materiala eta ekipoa

- Bizikleta: oinarriko osagaiak.
- Bizikleta-motak: errepidekoa, hibridoa eta mendikoa.
- Ekipamendua eta materiala, norberarena eta osagarria: materiala eta ekipamendua zakutoetan banatzea.
- Ekipamendu pertsonala eta kolektiboa: kaskoa, ezaugarriak eta homologazioa, betaurrekoak, eskularruak, kulota, maillota, oinetakoak, zira, CamelBak motxila, eta konponketako eta lehen laguntzako materiala.
- Ibilbiderako beharrezkoak diren erremintak eta ordezeko piezak.
- Neurriak erabiltzailari egokitzea: Neurria. Elementu mugikorak erregulatzea.
- Bizikletaren kondizioak eta gidatzeko teknikak, ibilbidea egingo den lur-motaren arabera.
- Bizikleta eta material lagungarria eta osagarria egokitzea, autonomia pertsonala mugatua duten pertsonak erabiltzeko.

2. Bizikleten mantentze-lanak eta mekanika:

- Bizikletaren piezak: koadroa, gurpilak eta urkila zurruna eta esekidurakoa, pedalei eragiteko ardatza, direkzioa, potentzia, eskulekua, zela-hodia, zela, bielak, pedalak eta piñoiak, katea, platerak, desbideragailuak, balaztak eta aldagailu-palankak.
- Bizikletaren lan teknikoak: potentzia, balaztatzea, direkzioa, esekidura.
- Bizikletaren osagaiak muntatzea eta desmuntatzea.
- Bizikleta-lantegia:
 - Lantegiko oinarriko ekipamendua, erremintak eta ordezeko piezak.
 - Matxurak hautematea eta ordezeko piezak eta osagaiak berriro jartzea.
 - Oinarriko eta premiazko konponketak.
 - Garbitzea eta koipeztatzea.
 - Mantentze-lan prebentiboak.

3. Bizikletak lekualdatzea

- Biltegiaren antolakuntza: materiala eta bizikletak.
- Materiala eta behar diren jantziak lekualdatzean kontuan hartu beharreko kontserbazio-irizpideak.
- Bizikletak garraiatzea:
 - Hainbat motatako ibilgailuek bete behar dituzten baldintzak.
 - Bizikletak oso-osorik lekualdatzeko segurtasun-baldintza egoki eta eraginkorrak.
- Bizikletak lekualdatzeari buruzko legedia ezagutzea.
- Oratzeko teknikak: ainguratzea, lotzea eta korapilo-motak.

C atala: ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Bizikletaz egiteko ibilbideetako gida.